

Euskal industriaren balio erantsia %3,5 hazi zen 2010ean

Langile okupatuak %2,9 murriztu ziren

Faktoreen kostuari erantsitako balioak, zeinak 2009an oso beherakada latza (%20,3) izan baitzuen, gorakako bideari (%3,5) heldu dio 2010ean, Eustatek landutako datuen arabera.

Urte arteko hazkunde honek bilakaera-tasa ezberdinak izan ditu sektoreetan: Aurrena *Kokeriak eta petrolio fintzea*, %60; bigarren *Produktu informatiko eta elektronikoak*, %12,1. Hiru eta laugarren *Produktu farmazeutikoak* (%11,6) eta *Ur-horniketa eta saneamendua* (%9,8).

Beste muturrean, jaitsiera aipagarrienak: *Erauzketa industriak* (%-20,7); *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza, zapatagintza* (%-5,4); *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%-4,8).

1. taula. Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

Uneko prezioak	2009	2010	Δ %
Landunak	225.337	218.819	-2,9
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	14.074.809	14.563.855	3,5
Ustiapeneko soberakin gordina	5.148.248	5.712.172	11,0
Egindako inbertsioak	2.190.359	2.058.524	-6,0
Amortizazioetarako zuzkidurak	2.431.103	2.572.858	5,8
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	49.226.282	53.469.783	8,6
Hornimenduak	27.707.567	31.712.901	14,5
Kanpo-zerbitzuak	7.532.715	7.921.970	5,2
Lagileria-gastuak	8.926.561	8.851.683	-0,8
Zergen aurreko emaitzak	2.023.478	2.522.314	24,7
Eragiketa jarraituetatik etorritako ekitaldi emaitza	1.878.687	2.186.500	16,4

Iturria: EUSTAT. Industria estatistika

Euskal industriaren negozio-zifrari begiratuz gero, 2009an %25 jaitsi zenak 2010ean goraka egin dio, 53.469 milioi, %8,6ko hazkundea, baina ez da iristen 2008ko (65.654 milioi) diru-baliora.

Euskal industrian guztira, enplegu okupatuaren galera sei mila eta bostehun pertsona pasa izan zen, aurreko urtean baino %2,9 gutxiago. Enplegu galerak ia sektore guztiei eragin die, bereziki ondokoei: *Erauzketa industria* (%-9,7), *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (%-6,1). Enplegua irabazi duten sektoreak: *Produktu farmazeutikoak* (%5), *Ur horniketa eta saneamendua* (%4,5) eta *Elikadura industria, edariak eta tabakoa* (%2,5).


Aurrekoarekin bat, euskal industriaren produktibitatea 2010ean, enplegatuko balio erantsiaren terminoetan neurtuta, %6,6 hazi zen.

Euskal AEko industriaren 2010eko beste alderdi aipagarri batzuk:

- Langile gastuak %0,8 jaitsi ziren.
- Inbertsioa %6 jaitsi zen, guztira 2.059 milioi. Inbertsio aldagaiak bilakaerarik onena izandako sektoreak: *Produktu farmazeutikoak* (%60,5) eta *Produktu informatiko eta elektronikoak* (%35,6).
- Ustiapen soberakin gordina %11 hazi zen, eta amortizazioak modu apalagoan hazi zirenez soberakin garbia %15,5 hazi zen..
- Aurrekoarekin bat, ekitaldiaren emaitza %16,4 hazi zen.

Faktoreen kostuari erantsitako balioaren banaketa hau da: %60,8 lan-faktorearen ordainsaria; %21,5 enpresa-soberakina eta gainerako %17,7 kapitalaren balio-galeraren, amortizazioaren, horniketa. 2009ren aldean langile-kostuen parte-hartzea balio erantsian 2,6 puntuz jaitsi da. Ustiapen soberakinaren parte-hartzea hazi egin da, 2,2 puntuz, 2009ren aldean.

1. grafikoa. Industriaren faktoreen kostuari erantsitako balioaren banaketa. 2008-2010



Iturria: EUSTAT. Industria estatistika

Lurraldeka bilakaera homogeneoa izan da bai enpleguan, bai balio erantsian. Balio erantsiaren hazkunderik handiena Bizkaian, %3,7; Gipuzkoan %3,4 eta Araban %3,3. Enplegu okupatua %3 jaitsi da Gipuzkoan, %2,9 Araban, eta %2,7 Bizkaian.

Eraikuntza sektorearen ezaugarri garrantzitsuenak 2010ean: enplegu okupatua %9 jaitsi da; balio erantsia %11 jaitsi da.

Lurraldeetan Euskal AEn oro har gertatzen dena errepikatzen da, bai enpleguan, bai balio erantsian, eta antzeko tamainetan: beherakadak bai enpleguan, bai balio erantsian.

2. taula. Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

	2009	2010	Δ %
Landunak	94.354	85.827	-9,0
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	5.932.017	5.279.630	-11,0
Ustiapeneko soberakin gordina	2.025.584	1.805.782	-10,9
Egindako inbertsioak	497.385	345.899	-30,5
Amortizazioetarako zuzkidurak	395.542	418.234	5,7
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	21.001.878	17.099.703	-18,6
Hornimenduak	14.548.392	10.254.339	-29,5
Kanpo-zerbitzuak	2.216.520	1.981.536	-10,6
Lagileria-gastuak	3.906.433	3.473.848	-11,1
Zergen aurreko emaitzak	970.482	477.814	-50,8
Eragiketa jarraituetatik etorritako ekitaldi emaitza	848.637	389.986	-54,0

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzako estatistika

Beste zenbait alderdi aipagarri:

- Eraikuntzako enplegua %9 jaitsi zen, horrek ekarri zuen aurreko urtearen aldean 8.500 lanpostu galtzea.
- Negozio-zifraren Zenbateko garbia %18,6 jaitsi da, eta Langile kostuak %11,1.
- Ustiapen soberakin gordina %10,9 jaitsi zen, eta amortizazioak %5,7 hazi; bi horiek %14,9 jaitsarazi zuten Soberakin garbia.
- Zergen aurreko emaitzak %50,8 jaitsi ziren, eta Ekitaldiaren emaitza %54.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tel.: +34-945-01 75 09 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko industria-estatistikari eta eraikuntza-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko industria-estatistikari eta eraikuntza-estatistikari buruzko datu-bankua](#)